

Dimako ermiten ibilaldia bagilaren 6an izango da aurten

12. orrialdea

Bi mila euroko postura egin dabe Astondoak eta Etxaburuak

Irati Astondoa zeanuriztarra eta Alatzne Etxaburu tolosarra segan eta azkoran neurtuko dira bagilaren 7an Zizurkilen. Alde bakotzak bi mila euro ipiniko ditu jokoan. Segan askotan neurtu badira be, azkoran biak dira hasibariak. **11. orrialdea**



Espainiako Kopea da Itziar Zabala eskalatailearen helburua

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

231

2015eko bagilaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

EH Bilduk, alde txikerragaz, irabazi dauz Udal Hauteskundeak Arratian


Bost udalerritan irabazi dau EH Bilduk, lautan EAJ-PNVk eta Ubiden UAk (Ubideko Arnasa). Arantzazun boto kopuru bardina lortu eben EH Bilduk eta EAJ-PNVk eta zozketeak EH Bilduri emon eutsan agintea Arantzazun.

EH Bildu Arantzazun, Areatzan, Diman, Igorren eta Lemoan izan da irabazle. EAJ-PNV Artean, Bedian, Zeanurin eta Zeberion. Artean AHPk (Al-datuz Herri Plataformea) zinegotzi bi lortu dauz. Arratia, Ubide eta Zeberion, EH Bildu, EAJ-PNV, UA eta AHP dira udaletxeetan ordezkariak lortu dabezan formazino bakarrak. Ez PSE-EEK, ez PPK ez dabe zinegotzirik lortu.

Herri batzuetan alde txikerra egon da boto kopuruari jagokonean. Arantzazun bardinketea egon zan: 132na boto jaso eben EH Bilduk eta EAJ-PNVk; Zeberion EAJ-

PNVk EH Bilduk baino 7 boto gehiago jaso ebazan eta Areatzan 21 boto gehiago EH Bilduk EAJ-PNVk baino. Lemoan eta Bedian, barriz, izan dira alderik handienak: 192 boto gehiago EH Bilduk Lemoan, eta 190 boto gehiago EAJ-PNVk Bedian.

Udaletan izandako aldaketak eragina izango dabe Arratiako Udalen Mankomunidadearen eraketan. Erakunde honetan udalak euren populazioaren araberako ordezkariak daukie eta udaletan gertatutako aldaketak mahai honetan be islatuko dira. **7. orrialdea**



DIMA/IGORRE

Gure Esku Dagok galdeketea aurkeztuko dau Diman

Gure Esku Dago Dima herri ekimenak bagilaren 7an, Diman 2016an erabakitze eskubidea gauzatzeko egingo dan herri galdeketea aurkeztuko dau. Gainera, Diman jositako oihalakaz hautes-tontzi erraldoia egingo dabe eta ekitaldi hau bagilaren 21ean San Mamesen egingo dan ekitaldian erakutsiko da. Han eta beste urburuetan be, hautes-tontzi erral-doiak egingo dabez, erabakitze eskubidea irudikatze, herrietan jositako oihalakaz.

Gure Esku Dago Igorrek maiatzaren 28an egin eban Joste Eguna. Hogeta sei oihal josi ebazan igorretarrak sano giro onean eta ekitaldiaren balorazino ona egi-ten dabe GEDko antolatzaileak. **6. orrialdea**

IGORRE

Herriko jaiak ospatuteko 10 egun

Hilaren 5ean, arrastiko zazpiretan botako dabe txupina Igorren herriko jaiak hasikerea emoteko. Ondoren, hamar egun egongo dira gozatzeko eta 50 ekitaldi inguru txosnagunean, Goiko Plazan eta herri osoan zehar. Kalejirak, lehiaketa gastronomikoak, kontzertuak, erromeriak, kirolak... emongo deusie hasikerea jaietako sasoiari. Zeberio Ermitabarri auzunean San Antonio jaiak ospatuteko hiru eguneko egitaraua prestatu dabe. Bariku gauean rock jaialdia egingo da. **5. eta 6. orrialdeak**

ARRATIA

Marea zuri-gorria Bartzelonan

Maiatzaren 30ean Athleticen Espainiako Kopako finala jokatu eban Bartzelonan Bartzelonaren kontra. Milaka Athletic zale joan ziran hara Bizkaia osotik, baita Arratiatik. Athletic-ek partidua galdu eban, baina animetan joan ziranak bertan bizi izandakoaren testigantza bialdu dabe BEGITURA eta jai giroa nabarmena da argazki horreetan. Argazki horreetako batzuk jaso doguz zenbaki honetan eta beste batzuk begitu.org gure webgunean egingo dira ikusgai. **8. eta 9. orrialdeak**



• Retinaren informe zehatzak egiten doguz (48 ordu)

• Oftalmologo espezialistakaz hartu-emon zuzena

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 · olaetxeoptika@hotmail.es

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

LEHENAGOKO BERBA ETA ESAKERA BATZUEN ERABILERA (III)

Gartxon: Urrineko albisteak jakiteari buruz, ameseta baragarri batzuk izan niozan lehengoaldian eta biharamunear ezin niozan burutik kendu. Bata zolan, danok edo gehienok telefonoak darabilguzala aldean, tabakorri kuarteroian tamainukoak, edozeinegatz eta edozein lekutara berba egiteko.

Mutruku: Bai, eta zutabeak, alanbrak, eta kikerak lepoan jaroaguzakela.

Gartxon: Bestea, idazteko makina antzeko batzuk jagozakela, edozein lekutara momentu berean albisteak idatzita bialtzeko.

Mutruku: Bai, eta idatzitako orriak batera-bestera, sorginak eroaten jeuriezakela inarra gainean hegatz, ximistearen haizean.

Gartxon: Azkenengo ameseta zolan, espilu antzeko baten aurrean ipinita, Ameriketan edo infernuko lekuan jagozan senide eta adiskideak, ikusi eta berba egin ahal jogukela.

Mutruku: Bai, ba hik jarraitik heure ameseta eta burutazino horreekaz eta laster etorriko jakuk Luziano aguzila, atea jotzen laguntasun bila heu Santagedako zoroetxera eroateko.

Joanikote: Zelan seme-alabak?

Gartxon: Horrerri buruz be izan nioan ameseta bat.

Mutruku: Asko dok.

Gartxon: Bai eta zolan, helduko dokela momentu bat, ohiturak guztiz aldatuko dozakena gizartean, alkarregaz bizitekoak eta abar eta inok ez jokena egingo galderarik

gauza batzuri buruz.

Mutruku: Lehengo astean esan neuntsan etxeke seinari, "beno hamabi urterantza hoa: Txo-txo eskolatik hatorreanean, hartik as-toa eta goiko basoan, sarrerako boto-lekuan jagoan abar moltzoa ekarrik". Nor etorriko jota lagun-tan? "Ardurea" erantzun neuntsan. Denporea aurrera joian eta urduri samar nengoan, halango baten ia ilunabarrean, han etorri zolan guztiz hasarre, esaten: "han egon naz, etxon eta etxon baina hara inor ez da agertu". Eta? "Azken baten neuk bakarrik atondu behar izan dot". Ba semetxua, horixe dok "ardurea" eta arduraduna izatea, bakttxa arazoari aurre egiteko kapaz izatea, horretaz esakera bat jagok diñokena: "ezina,

ekinaz egin".

Joanikote: Hori holan badok, zuenean ez dok pasauko Azpurun pasau zoana.

Mutruku: Zer pasau zolan Azpurun ba?

Joanikote: Ba zapatua zolan, eguerdiko hamabiak inguru eta aita zaharra gixajoa, han jenbilan kortan azpiak ateraten, izerdi maran. Semea, ia mutil zaharra, goizaldean tabernatik etxeratuta, ohean. Aitak urrintetik asmau joan prentsuduna etorrela eta sarda kirtenagaz lantzean behin goiak jota: "mutil, jegi hadi kostal zakua kaja gainera eroateko". Halangoen baten semeak: "bai, banoa, banoa, honeek gauzak gero urtengo deustez niri baina...".

Mutruku: Ha be orduan "ikopean artorik egingo bada etxerako modukoa".

Kopak, txikerdi neurrikoak zozan baina bazkaloste luzea joan zolan lez, "txarria hiltzeko" botila aguardientea, orpoa jota jagoan ia.

Badinotsak **Joanikotek Gartxoneri:** ule luzea daukok.

Gartxon: Oindino luzeagoa itxi behar joat, kartxeta erara ibilteko eta kamarako zurrun gainean jagoan aittaren kapelagatz, joan-etorri bat egin behar joat noizean behin plazatik, errespetu apur bat emoteko.

Mutruku: Bai, "behar jok txepetxak bastea".

Gartxon: Heuk be bizar eta bigote horregaz... "esan behar jeutsek as-toak mandoari, belarri handi".

Gartxon: Gaur hamabost ehuntze eroan behar joazat Urririkinetako baserrira, tratua eginda jeukoat eta.

Mutruku: Orduan albokea egin beharko jeutsuk?

Gartxon: Bai, "bariku txikerrari labasu handia", horretarako nahikoa dok topolino eta sardina zahar bana, heuk behi antzu hori sal-tzean dokenean, egingo jeutsuzek albokea eta eskalexa eta ordurako itxiko joguzak beste berba, esakera, izakera eta kontakizun batzuk.

Felipe Barrenetxea Zamakona

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Bagilaren 1etik 7ra
Rodríguez Martínez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara
Guarrobenea. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 8tik 14ra
N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 15etik 21era
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberiokoak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan
22:00etatik 09:00etara
Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea
94 631 17 17 / Faxa 94 631 92 15
Gorbeialde
94 631 55 25 / Faxa 94 631 71 01
Parketxea
94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea
94 673 62 51
Gorbeialde Irratia
94 631 52 90
Trenak
Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265
Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.
Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.
Orduro: 05:45etik 21:45era.
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo
Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:
Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga
Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga
Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea
Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio
Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.
Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.
Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpuri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.
Maketazinoa: Beatriz Azpuri eta Iñigo Iruarrizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 6.800 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Gure lege bat izatea da LOMCEren aurrean erantzunik sendoena

Euskal herrian LOMCEren itzalpean hasi genduan ikasturtea. Hezkuntza komunitadearen haserre eta askotariko protestak eragin dituan erreforma, apenas zarata atera barik hasi da apliketan eta kezka eta ziurbakotasuna da nagusi ikasle, irakasle, langile eta gurasoen artean.

Egia esan, EAEn, aurten orokorrean ikastetxe guztiak jarraituko dabe orain arte moduan: egongo diran probak "diagnostiko probak" izango dira, eta ez dot uste ikasleak arazo handirik izango dabenik ondo egiteko.

Nafarroan, aldiz, beste estrategia batzuk erabili beharko dira orain arte bezala jarraituteko. Dana dala, ikasmateriak dagoan zalaparta inprobisazioa baino ez da ikusten, argitaleak be ez dakie zer egin eta.

Aurten Erljino hautatzen ez daben ikasleak LOMCEk arautu dauan Gizarte eta Herritar Balioak

ikasgaia gauzatu beharko dabe.

Kutsu politiko argia ikusten deusat programa horri, hau da, nire sasoiko "Formacion del espíritu Nacional" eta "Seccion Femenina" ikasgaiak antzekotasun handiak ditu, guztiz adoktrinatuak.

Baina honen aurrean, 30 urte ez dira joan alferrik, ezta?

Eskola bakotzak defendidu daga bere hezkuntza proiektua, hezkidetzak programak indarrean ipini eta formakuntzan adosten diran proiektuak martxan ipini. Hezkuntza Sailaren babesa izango dozuelakoan nago.

Beste kontua da LOMCEren neurriak gordinena errebalidatzen dirala, tituluak lortzeako diralako eta ikasleek bizitzan garrantzia daukielako. (2017an izango da lehenengo errebalidea).

Orain arte Madrilek % 55 eta autonomia bakotzak % 45 curriculum zehazteko eskumena eukan; orain aldiz, % 65 dago Madrilen esku, beraz ez da gaxa susmatzea amaierarako azterketan Madrilek finkatutakoa sartuko dala.

Honen aurrean denporea garrantzitsua da eta lehenbailehen

lege propio bat, hezkuntza sistema osoa arautzen dauan lege propio bat izatea, beharrezkoa dogu.

Gure artean adostuta, Legebiltzarrak onartuta eta nik pentsatzen dot horren gainetik pasatzea ez dala bape be erreza izango.

Guzti hau aurrera eroateko alkarlana eragitea beharrezkoa da. Bakotzak, dagoan lekutik, LOMCEren ezarpena ebitetako hamaika trikimailu erabili beharko dau eta.

Atzenik, neure eretxia emongo dot Heziberri 2020 proiektuari buruz. Jakinda hainbat kritika jaso dauala eta... aprobau dan lehenengo fasean diseinatu dauan marko teorikoa dekretu kurrikularretara erotzen bada -eta printzipioz hola izango da- LOMCE legetik datozen dekretuak tala egingo dau eta lehenengo test serioa izango da jakiteko Jauriritza ze puntutaraino dagoan prest LOMCEren aurka egiteko.

KARI BASOZABAL

Udabarriko kontzertua Andra Mari eleizan

Luis Iruarrizaga Abesbatzak emon ditu daborduko udabarriko kontzertu bi, bata Algortan bertako Itxartu Abesbatza eta Karrantzako Pozalagua Abesbatzagaz batera. Oraingoan Igorren izango da, bertako eleizan, eta aurrean aitatutako hiru abesbatzak hartuko dogu parte. Kontzertu hau bagilaren 6an izango da, arrastiko zortziretan.

Aukera parebakoa dozue abesti politik entzun eta ordubete gozoa pasetako.

Ez hutsik egin!

LUIS IRUARRIZAGA ABESBATZA

ERETXIA



XABIER AIERDI
Soziologoa

Sasoï egonkor banandua nagusi, baina labankorra jaio

BEGITUK barnehartzen dauaneko eremuko hamar udalerritan EH Bilduk 4.058 boto lortu dauz eta EAJk 3.994. Horrez gainera, Artean AHPk 118 boto eskuratu dauz eta UAK 68 Ubiden. Botoetan nagusi izan da Bildu eta zinegotzietan EAJ, lehenak 39 eta bigarrenak 41. Azkenik, AHPk zinegotzi 2 eta UAK 4. Oinarrizko datu honeek ikusita, enpate nabarmena dago indarretan. Dauala lau urte be, gauza bera gertatzen zan. Hau da egoera barria eta ondo ulertzeko, egitekotan, konparazioa dauala 8 edo 12 urtekoagaz egin beharra dago. Orduko urteetan EAJ zan nagusi eta orain antzeko indarrak daukiez. Bilduk Areatzan, Diman, Igorren, Lemoan irabazi dau. EAJk Artean, Bedian, Zea-nurin eta Zeberion. Arantzazun enpatau boto bardineta eta Ubiden UAK.

Panorama honek seguruenik luzarorako aldaketak ekarri dauz eta badirudi udalerririk ezker abertzalerantz eta besteak EAJ-rantz abiaturik dirala. Ez dot uste sakoneko aldaketarik gertatuko danik hurrengo urteotan. Egia da urte luzeetan jeltzaleen udalerririk zira eta bazirudian egoera hau aldatuezina zala, baina egia be bada Arratiako herriak euskerearen lurraldean dagozala, eta eremu honetan Bilduk behetik indar handia egiten dau eta hainbat udalerririk jabetuko da. Aurreko udal hauteskundeetatik egoera hau Bizkaiko toki askotan

nabarmena da.

Beste datu interesgarri bat Udal eta Aldundiko hauteskundeak konparatzea da. Gaurdaino, Foraletan, EAJk eta ezker abertzalearen sigla desbardinak erotzen ebezan ia boto guztiak. Gero apur batzuk PPK eta beste batzuk PSE-EEK. Baina aurten Podemos fenomeno agertuko jaku eta batez be Bilduk galdu dauzan boto ugari alderdi barri honetara joan dira.

Podemos alderdiak Irabazigaz batera 542 boto eskuratu dauz. Eusko Alderdi Jeltzaleak 70 boto galdu dauz Aldundirako botoetan eta EH Bilduk bere boto propioak eta Ubide eta Arteako batzuek batera, 400 boto inguru galdu dauz Foraletan. Gero, 51 boto agertzen dira Zezenketen Kontrako Plataforma, Partido Humanista eta UPyDko botoak batuta. Gainera, PSEk ez dau botorik galtzean eta PPK 43 irabazten dauz, beharbada Udalerritakoetan EAJra joan ziranetik.

Errepasso hau eginda gero, badago egonkortuko dan joera bat: Arratia banandu egingo da EAJ eta ezker abertzalearen artean. Hau izango da konstantea. Datu barria eta koiunturala, momentuz luzera ezezaguneko, Podemos konstelazioak suposatzen dauana. Baina aurrera begira ezker ez da monolitikoa, ez da bakarrik ezker abertzalea, eta Erkidego eta Hego Euskal Herrian gertatu dan moduan, Podemos-ek kaltetu egin dau EH Bildu. Beste modu batera esanda, Podemos-ek aukera gehiago emongo dauz etorkizunean eta ezkerreko posizioak matizetako balioko dau. Eragin berbera daukan jakiteko, datozen udagoieneko hauteskunde edo datorren urteko autonomikoetara arte etxon beharko da. Baina, edozelan be, pentsau lei Podemos gertzeko etorri dala eta beragaz be kontau beharko dala, ez udalerritako hauteskundeetan, ze horretarako BEGITU lurraldekoak ez jakoz aproposenak, baina bai Foral, Erkidegoko eta Estatu Espainiarrekoetan.

Neurri baten, Podemos-ek errepresentetan dauan egoera barri eta lanbarrorago bat hasi da eta, beste baten, egoera egonkor banandu eta sendoan gagoz. Azken honetan dagoz EAJ eta Bildu.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerre, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Etxun



Ohe edo bestelako lekuren baten atsedean hartzeako edo lo egiteko gorputza horizontalean paretea edo jarrea da. Beste era batzuk Arratian honako honeek dira: etzun (étzun, agoskatuta); itxun (itxun, agoskatuta) edo itzun. Batuz, etzan esaten da. Etxun edo itxun aginduzko berbea be bada: txakurrari isilik, jarrita eta geldirik egon daiten esateko erabilia; esate baterako: "Etxun hor!".

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA**

Muskerrari bildurra

Muskerra, politez, sano polita da eta bereno bakoa, baina lehenago, bildur handia izaten jakon ia-ia subeari bestekoa. Gure zaharren irakatsietatik dakigu muskerra egoan lekutik hur subea ibiltzen zala eta kontuz ibilteko esaten euskuen, batez be, udabarririk aurrerako egun beroetan.

Zergaitik ba orduan hainbesteko bildurra muskerrari? Ba, aiko. Gure zaharrai entzuten geuntsan, batez be, zeozer txarto egin ezker, muskerrak batzuetan bematik-edo ausiki egiten ebala eta beste batzuetan samara saltu, barruan sartu eta aterateko komediak.

Bildur hau dala-eta, esaunda bat baino gehiago kontetan da Gorbeialdean eta aiko hemen bat mostrarako.

"Behinola, sinismenbako bat, Bariku Santuz gainera, eleizako eleizkizunera barik otegurretan joan ei zan beresi batera zapatuko labesua egiteko. Otea beste

edozein egur-abar baino hobe da izan be labesurako labea ondo berotuteko. Urli horrek, ote karga hori estukinagaz lotu, lepoan hartu, zaku bat azpitik dala, eta baetorren etxerantza. Halako baten, zazt! bema-bematik ausiki egin eutsan musker endemonino batek. Ahalak egin arren be ezin eban musker hori soltau. Horretara, Bariku Santua zala konturatuta, bota lepoko ote-kargea eta eleizarako bidea hartu eban abadeagaz konfesetako. Abadeagana ailegau zanean eta bernako muskerra erakutsi, badinotso:

-Jauna, begitu beio nire bema musker demonintru honeri, ezin dot ezelan be soltau iztenak eginda be.

-Baina, nondik ibili zara ba musker hori gainetuteko?

-Ba, begitu bei jauna, eleizara barik beresira joan naz otegurretan labesurako, baina bildursartuak jota damutu eta parkeske nator.

-Ai ene, nik parkatuko deusut Bariku Santuko eleizkizunera etorri ez egitea, *in nomine Patris...* baina, musker deabru hori bematik uxatuteko zazpi herritako kanpaiak jo behar dira. Zoaz zazpi herriotara eta bakotzeko sakrista-ari agindu egiozu kanpantorreko kanpaiok kanpai hotsean iminteko.

-Bai, jauna, berorrek esaneko moduan egingo dot eta barriro ez dot egingo gaurko halakorik.

Abadeak esaneko moduan egin ei eban. Gorbeialdeako zazpi herritara joan ei zan eta zazpigarren eleizako kanpai hotsa entzun zanean, parte txarreko musker horrek bakean itxi eutsan".

Muskerrari bildurra izan be egin behar honelako esaundak entzun eta sinistu ezker!

ZERTZEAN



ARITZ ARRIZABALAGA

Memoria

Duela hamabi urte esan zioten aurkezteko, balio zuela. Bera bezalako pertsona bat behar zutela taldean. "Pentsatuko dut" izan zen bere erantzuna, loadi on baten ostean hartuko zuela erabakia.

Biharamunean, ohetik jaiki orduko baiezkoa nahiko garbi zuen. Aldeko arrazoi gehiago zituen kontrakoak baino. Gogoan du oraindik bidali zuen mezu laburra: "Pentsatu dut: Bai, aurkeztuko naiz".

Hilabeteen prestatu zuten. Lasai egoteko esan zioten, beraiek esaten ziotena egin eta esaldi berdinak errepikatu, ez zuela besterik egin behar. Eta hala egin zuen. Irribarre egin eta alderdiko hiru esaldiak esan. Aste gutxian herriko irudi bilakatu zen. Gero etorri ziren lau urteak. Lau aste baino gehiago ziren lau urte, baina irribarre egin eta betiko esaldiak errepikatzen jarraitu zuen. "Zuk jarraitu irribarre egiten", eta lau urteen amaieran aurrenekoaren antzerako galdera egin zioten: "Honekin ere

ausartuko haiz?". Loarena aipatu zien, baina hilabete beste prestakuntza baten ostean gai ikusi zuen bere burua aurrera egiteko. Gorago orain; betiko irribarre eta esaldiekin.

Duela lau urte ere erritu bera errepikatu zen: galdera, hausnarketa, irribarreak eta hiru esaldiak.

Oso goian dago jada. Aurten aldarean egoteko ere balio duela esan diote, probintzia gidatzeko adibidez, eta gutxi barru, nork daki, herrialdea bera ere bai.

Duela hamabi urte izan zituen aurkako arrazoiez oroitu da, eta konturatu ez zuela zertan kezkatu. Orain ez dauka zalantzarik, hamabi urteko esperientziak zerbait erakutsi badio, hori da, irribarre egin eta hiru esaldirekin nahikoa dela, jendeari irribarre gelditzen baitzaio memorian, ez lau urtean egindakoa.

Eta nahikoa ez bada, beti dago azken hilabetea boto emaileak engainatzeko.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Jolastea ume kontua dala esaten dabenak ez dabe Zaztaparrak Asti Taldea ezetuten. Zaztabegirale Egunak gauza desbardin askoren topalekia izan gura izan eban; belaunaldi desbardinena, bizipenena, oroitzen eta ilusinoena, eta batez be ondo pasetako aukera, libre sentiduz alkarregaz jolastutekoa. Zer da ba bizitza libertuduten ez bagara?

Zaztaparrak Asti Taldea



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa
hagin klinika
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarregia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilabete Zerbateko 100
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasoibide.com
Tel: 94 657 54 50

IGORRE

Hilaren 5ean botako dabe txupina Igorren herriko jaiak hasikerea emoteko

Bagilaren 5etik 14ra, ospatuko dabez Igorren herriko jaiak, 50 ekitalditik gorako egitarau batez. Kalejirak, lehiaketa gastronomikoak, kuadrilen arteko olinpiadak, kirola, kontzertuak, erromeriak... Herrikoak zein kanpotik etorritakoak aurkituko dabe zer egin ondo pasetako, duda barik, hamar egun honeetan.



Erredakzinoa

Bagilak 5, barikua

16:30ean eskolatik hasita, Txa-

rangazo txarangea herrian zehar.

17:00etan, Zaztaparrak umeakaz turutak egingo dabez Goiko Plazan.

18:30ean, Agirre Lehendaka-

ria kaletik igoera udaletxera. Udaletxean Larrain jantza gaiteruakaz.

19:00etan, txupinazoa udaletxeko plazan. Musikea, jatekoa eta txosnea Goiko Plazan.

20:00etan, kuadrilen arteko Olinpiadak. Karro karrera. Hasi kioskoan eta txosnetan amaitu.

21:00etan, erromeria: Aldats taldea.

24:00etan, Zu bai Zu! Talentu Lehiaketea. Izen emotea txupinazotik 21:00ak arte txosnetan. Ondoren kontzertuak: Mockers eta Sound Sisters.

Bagilak 6, zapatua

Euskeraz bizi gura dot Eguna

Egunean zehar, Bizkaiko Bertso Eskolen Eguna Kiñu Gaztetxean.

09:00etatik 20:00etara, IV. Mila Baietz. Hasikerea eta amaierera Kultur Etxeko plazan.

09:00etan, ibilaldia heritik. Urtekerea Kultur Etxeko plazan. Ondoren, Jubiladuen Txokoaren aurrean hamaiketakoa.

09:00etan, Futbol 7 torneoa. Santantonioetako IV. Alebin Torneoa.

11:00etan, BTT herrikoia zirkulokros zirkuituan.

11:00etan, dultzaineroen kalejire Goiko Plazatik hasita.

12:00etan, Munduko Arrozen Txapelketea. Txosnagune ondoko landan, euria bada eskoletako aterpean.

14:30ean, arrozen aurkezpena.

17:00etan, Afrika Ruge jantza afrikarrak txosnagunean.

18:00etan, Ane eta Piratakaz umeentzako jantzaldia txosnagunean.

18:00etan, kuadrilen arteko olinpiadak. Uger ala hegaz? Txosnagunean.

20:00etan, abesbatzen kantaldia Kultur Etxean. Itxartu (Getxo), Pozalagua (Karrantza) eta Luis Iruarizaga (Igorre) abesbatzak.

23:00etan, kontzertuak: Estricalla eta Eskean Kristö. Ondoren berbenea Zirkinik Bez taldeagaz.

Bagilak 7, domekea

10:30ean, bizikleta karrera gazte maila. XXXIII. San Antonio Saria.

11:00etan, kalejire txistulariakaz.

16:30ean, Gazte pelota jaialdia.

19:00etan, *New Cabaret We Can Bar* ikuskizuna.

Bagilak 8, astelehena

17:00etan, umeen karaokea.

18:00etan, gazteen karaokea.

19:00etan, Futbito Txapelketako finala.

19:15ean, Zumba txosnagunean.

16:30etik 20:00etara, Arratiako Gurutz Gorria ezetu Kultur Etxeko parkean. Puzgarriak...

18:30ean, meriendea Kultur Etxeko parkean.

Bagilak 9, martitzena

18:00etan, Arratiako Musika Eskolako emonaldia Lasarte Aretoan.

19:00etan, Eskalada Txapelketea.

20:00etan, Arratiako Musika Eskolako emonaldia Kultur Etxeko plazan.

Bagilak 10, eguaztena

17:00etan, gazteak murala margotu Correos ondoan.

17:30ean, Gobiki Kirol Klubak antolatuta, kros training-a Kultur Etxeko plazan.

19:00etan, Astrapalea Musika Eskolearen emonaldia txosnaguneko eszenatokian.

Bagilak 11, eguena

Goizean Inazio Zubizarreta III. Triatloia.

17:00etan, umeen play-backa udaletxeko frontoian.

17:00etan, gazteak oka erraldoia

herrian zehar, Kultur Etxeko plazatik hasita.

18:00etan, triki kantu poteoa.

21:00etan, herri afaria. Ondoren erromeria Dantzadigaz txosnagunean.

Bagilak 12, barikua

08:00etan, herri armozua Lehendakari Agirren.

10:00etatik 13:30era, umeentzako koltxonetak, kars-ak eta arku tiroa txosnagune ondoko landetan.

17:00etan, Tortilla eta Pintxo Lehiaketea. Txosnagune ondoko landetan.

19:00etan, pintxo aurkezpena.

19:30ean, tortilla aurkezpena. Ondoren Ardoa Barrura txarangea heritik zehar.

22:00etan, kontzertuak: Bilbomatics, Akatz eta Dr. Baltz.

Bagilak 13, zapatua

08:30ean, ibilaldia herriko ermitetik Kultur Etxeko plazatik hasita. Jubiladuen aurrean hamaiketakoa.

09:00etatik 14:00etara, Futbol Torneoa (neskak).

11:00etatik 19:00etara, Txu Txu Trena AMEk antolatuta.

12:30ean, mezea parrokiari.

17:30ean, rally umoristikoa.

19:00etan, pelota jaialdia. Ibarondo-lurrebaso vs Lejarza Zapiko. Titin-Etxbarria vs Saralegi-Otxandorena.

22:00etan, kontzertua: Gozategi. Ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

Bagilak 14, domekea

10:30ean, Bizkaiko Ziklista Eskolaren Bira.

11:00etan, kalejire txistulariakaz Garbetik hasita.

13:00etan, Areatzako Banda Kultur Etxean.

14:00etan, jubiladuen bazkaria eta karta txapelketak.

18:00etan, Arantzarte jantza taldearen erakustaldia.

19:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz. Bitartean, Bals Txapelketea, kuadrilen olinpiadetako sari banaketea eta zozketea.

20:00etan, jaien amaierako txokolatea.



GOIKO GARBI
GARBIKETA BEREZIAK ETA MANTENIAK.
KEDARRAK, TXIMINIAK, KANALIOAK...
UDABERRIKO ESKAINTZAKI!
TXIMINIA GARBIKETA 69€ -BEZ
KANALOI GARBIKETA 3€ -BEZ
696 27 42 00
MERKEA, AZKARRA ETA GARBIA
www.goikogarbi.com

AREATZA/IGORRE

Zahartzaro osasungarriaren aldeko berbaldiak

Erredakzioa

Zahartze aktibo eta osasungarriaren gaineko berbaldi-zikloa egingo da Arratiako Udalen Mankomunidadeak antolatuta, Agintzari Soziedade Kooperatiboaren eta La Caixako Gizarte Lanaren kolaborazioagaz. Hori dala-eta, bagilaren 18an eta 25ean "Gaur egun adinekoa izatea" eta "Gure ongizatearen arduradun" izeneko berbaldiak egingo ditue arrastiko 17:30ean Areatzako udaletxean.

Berbaldiok 65 urtetik gorakoai dagoz zuzenduta eta "Zahartzaroa, aukera lez. Zahartze osasungarria sustatuz" programearen barruan dagoz. Programeak helburu bi daukaz: batetik, mendekotasuna

prebenidutea, eta, bestetik, adinari lotutako krisiak bizitzen dabizan persona nagusiai laguntzea. Mankomunidadeko Gizarte Zerbitzuai lotutako proiektua da, eta laguntza medikuaren eta beste baliabide komunitario batzuen babsa dauka.

Andrak eta gizonak desbardin gaixotzen dira

Beste alde batetik, Igorreko Bardin-tasun Sailak antolatuta, bagilaren 4an, Igorreko Jubiladuen txokoa, andren eta gizonen arteko desbardin-tasun egoerak zelan eragiten dauan osasunean landuko dabe. Hizlariak Txus Ziarrusta eta Leonor Aurrekoetxea Osakidetzako Zaindu taldekoak izango dira.

ARTEA

Kiroldegi barria estrenau da

Erredakzioa

Maiatzaren 11n zabaldu ebazan atea Arteako kiroldegia eta maiatzean zehar debalde erabili dabe instalazinoak arteztarrak. Bagilean ordenantzeak marketan dauzan prezioak jarri dira indarrean, erabiltzaileen diru sarren araberakoak. Kiroldegi barria amaitu dabe kursoa yoga, pilates, aerobic eta hirugarren edadekoentzako gimnasiako erabiltzaileak eta 2015-2016 ikasturtean be Arteako kiroldegi barria izango dira honek kursook. Kiroldegiko beste erabiltzaileak be hasi dira erabiltzen gimnasia eta kirola egiteko instalazino aproposago honek. Alberto Etxebarriak Arteako alkateak, erabilerailera maila handia izan dala maiatz honetan adierazo deutso BEGITURI:

"ez bakarrik Arteatik, Areatza, Zeberio eta Igorreko jentea be etorri da".

2011n hasitako lanak

Kiroldegi eta pelotalekuko lanak 2011n hasi eta 2015ean amaitu dira. Zatika egin dira miloe bi euroko aurrekontua eukielako. Dana dala, atzenean ez dala miloe bira heldu esan dau alkateak.

Pelotalekuari estalpe osoa ipini jako eta kiroldegi txikerra egin da bere ondoan. Solairu biko eraikina da hau. Beheko solairuan aldagelak ipini dira eta 150 metro koadroko aretoa, oraintsu arte eskolan eta Kultur Etxean egin diran jarduerak bertan egiteko. Goiko solairuan, sarbideak dagoz eta gimnasia egiteko makinak ipini dira 200 metro koadroko aretoan.

DIMA/IGORRE

Erabakitzeko eskubidea gauzatzeko herri konsulta egingo dabe 2016an Diman

Erredakzioa

Bagilaren 7an Diman, Gure Esku Dago ekimenak, 2016an, erabakitzeko eskubidea gauzatzeko Diman egingo dan herri konsulta aurkeztuko dabe eguerdiko 13:30ean, plazan. Ondoren manifestua irakurri eta Diman jositako oihalakaz hautestontzi erraldoi bat egingo dabe bertan batutakoak. Ekitaldi hau, bagilaren

21ean San Mamesen (Bilbo) egingo dan ekitaldian erakutsiko da.

Geroa ehuntzen Igorren

Igorretarrak oihalak josteko eguna maiatzaren 28an ospatu eben. Gure Esku Dago Igorrek, batu zan jente eta giroaren balorazino ona egin dau. "Jente piloak alkatu zan Igorreko erdigunean, gure etorkizuna ebazteko eskubidearen alde

ARRATIA

EAJ-PNVk bost urteko luzamentua ezartzea proposatu eban gasa frackingaren bidez esplorau eta ustiatzeko

Erredakzioa

Maiatzaren 18an aurkeztu eban EAJ-PNVk Legebiltzarrean gasa frackingaren bidez esplorau eta ustiatzeko teknikan bost urteko luzamenturako proposamena. Era berean, teknikearen eboluzioa eta formula barriak aztertze batorde zientifiko independentea eratzeko proposatu eban. Guztira jeltzaleak bederatziz emendakin aurkeztu eutsien hidrokarburo ez-konbenzionalak prozesuan eta haustura hidraulikoan (frackinga) ingurumena babesteko neurri osagarrien buruzko Lege Proposamenari.


EAJ-PNVren arabera, proposa-

mena legalidadearen eta arduarearen printzipioetan oinarritzen da. "Ekidin behar da Estaduak, bere eskumenen defentsan, Eusko Legebiltzarrak onartzen dauan proposamena errekurridutea. Izan be, Estaduak, Errioxa eta Kantabriako legeak indarbarkotu ditu, eta babes barik itxi ditu erkidego biak. Indarbarkotutako legeak ezinezkoa da aurrera egitea" dinoe.

Beste alde batetik, ardurearen printzipioa dala eta, babes neurriak hartzeako eskatzen dau, "baidiralako susmo errazoituak dinoenak produktu batzuk eta frackinga arriskuak izan daitezakela osasunarentzat eta ingurumenarentzat".

"Norabide onean"

Fracking Ez Plataformako Mikel Oterok, luzamentu hau "norabide onean" doala balorau eban, baina ezertan geratu daitezakela pausu gehiago emoten ez badira. Otero pozik agertu zan, alderdi guztiak frackingari trabak ipinten deutesialako, baina PSE-EE eta EH Bildu debekua alde agertzen diran bitartean, EAJ-PNVren luzamentuak pausu gehiago behar dituala frackinga gauzatu ez daiten esan eban.



Eusko Legebiltzarra.

ZEBERIO

San Antonio jaiak Ermitabarrin

Erredakzioa

Hiru eguneko jai egitaraua antolatu dabe Zeberioko Ermitabarrin sanantonioak ospatuteko. San Antonio eguna zapatuz da aurten, baina txupina bezperan botako dabe jaiak hasikerea emoteko. Aurreko domekan egingo dan ZeberioXTrem BTT mar-trea be, jai egitarauan sartu dabe, ohiturea dana lez.

Bagilak 7, domeka

09:00etan, IV. ZeberioXTrem BTT Martxea.

Bagilak 12, barikua

18:00etan, txupinazoa.
18:30etan, pelota partiduak.
21:00etan, sardina jana.



22:00etan, rock jaialdia, Rolling Dice eta The Zepo.

Bagilak 13, zapatua

12:00etan, mezea parrokiak.
13:00etan, puzgarriak.
13:00etan, barauskarria.
13:30ean, poteoa musikeagaz.
14:00etan, herri bazkaria.
16:00etan, plater tiroa.
16:00etan, puzgarriak.
18:00etan, bola jokoa.
18:30ean, serigrafia tailerra (koloretako kamisetak eroan).
19:30ean, herri merienda.
21:30ean, erromeria, Elizagoien ahiztak.
01:00etan, txokolatea.

Bagilak 14, domeka

11:30ean, umeentzako jolasak (Uratzan).
12:00etan, helduen pato lasterketea.
12:15ean, umeen pato lasterketea.
13:00etan, Zeberioko trikitilari gazteak.
18:30ean, mariatiak.
20:00etan, Argazki Txapelketako sari banaketea.



Igorretarrak Joste Egunean.

ARRATIA

EH Bilduk bost herritan irabazi dau eta EAJ-PNVk lautan

	Arantzazu	Areatza	Artea	Bedia	Dima	Igorre	Lemoa	Ubide	Zeanuri	Zeberio
EAI	132	336	210	374	390	1.013	754	29	411	345
BILDU	132	357	126	184	471	1.127	946		377	338
AHP			118							
UA								64		

■ EAI ■ BILDU ■ AHP ■ UA

Ordezkaritza lortu daben alderdien datuak BEGITUKO eremuan.

Grafikoa: Xabier Aierdi.

Erredakzioa

Arantzazun EH Bilduk eta EAJ-PNVk boto kopuru bardina lortu eben maitzaren 24ko Udal hauteskundeetan, 132 bakotzak, eta zein izango dan agintean maiatzaren 27an ebatzi zan zozketa bidez. EH Bilduk hartuko dau Arantzazun alkatetza. EH Bildu, Arantzazun, Areatzan, Diman, Igorren eta Lemoan izan da irabazle. EAJ-PNVk, barriz, Artean, Bedian, Zeanurin eta Zeberion lortu ditu boto gehien. Ubiden UAK (Ubideko Arnasa) lortu dauz lau zinegotzi eta EAJ-PNVk bat.

Bagilaren 13an da udalak osutuko data ofiziala eta orduan jakingo dogu nor izango dan herri bakoetean alkate. Guztira, EH Bilduk 4.058 boto lortu ditu eta EAJ-PNVk 3.994. EAJ-PNVk 41 zinegotzi ditu; EH Bilduk 39; Ubideko UAK 4, eta Arteako Aldatuz Herri Plataformeak 2. Ez PSE-EEK ez PPK ez dabe zinegotzirik lortu BEGITU eremuko 10 herrietan.

Herrietako hautetsiak Arantzazu

Arantzazun 301 lagun dagoz eroldan eta partizipazioa % 90,03koa izan zan. EH Bilduk 132 boto lortu ebazan eta EAJ-PNVk beste horrenbeste. EH Bilduk 4 zinegotzi lortu ditu: Igor Menika, Amaia Jugo, Roberto Adolfo Fernandez eta Nekane Zuazo.

EAJ-PNVk 3: Begoña Llano, Jon Monasterio eta Olatz Petralanda.

Areatza

Areatzan 915 lagunek euki dabe botoa emoteko eskubidea. Horreetatik 158k ez eben botorik emon (% 17,27), beraz partizipazioa % 82,73koa izan zan. EH Bilduk 357 boto lortu ebazan (emondako botoen % 47,15) eta agintean egon dan EAJ-PNVk 336 (% 44,38). Hori dala eta, EH Bilduk 5 zinegotzi izango ditu eta EAJ-PNVk lau. PPK 21 boto eta PSE-EEK 14 izan ebazan eta ez dabe udal ordezkariarik lortu.

EH Bilduko hautetsiak: Asier Garcia, Yazmina Beobide, Idoia Ruiz, Jose Luis Madariaga eta Maitane Diez.

EAJ-PNVkoak: Arkaitz Amuriza, Eguzki Uzkanga, Damian Agirremota eta Miren Itziar Zuloaga.

Artea

Artean 596 lagun dagoz eroldan eta horreetatik 488k emon eben botoa. Hemen hiru formazinok eukiko dabe euren ordezkariak udaletxean: EAJ-PNVk, EH Bilduk eta Aldatuz Herri Plataformeak. EAJ-PNVk 210 boto (% 43,38) eta 3 hautetsi lortu dauz, EH Bilduk 126 boto (% 25,81) eta zinegotzi bi, eta AHPk 118 boto eta beste zinegotzi bi. PSE-EEK boto bi jaso ebazan.

EAJ-PNVko zinegotziak: Alberto Etxebarria, Alberto Intxaurraga eta Josu Larrion.

EH Bildukoak: Igor Etxaniz eta Iker Atutxa.

AHPkoak: Marcelo Totorika eta Josu Murgia.

Bedia

Bedian 839 lagun dagoz eroldatuta eta 221ek ez eben botorik emon. Partizipazioa, beraz, 73,66koa izan zan. EAJ-PNVk 374 boto (% 60,51) jaso ebazan eta 6 zinegotzi izango ditu, EH Bilduk, barriz, 184 boto (% 29,77) eta 3 zinegotzi izango ditu. PSE-EEK 19 boto eta PPK 11 izan ebazan.

EAJ-PNVko zinegotziak: Aitor Sorriketa, Igone Etxebarria, Gotzone Zabala, Imanol Ispizua, Meritxel Lejarburu eta Aitziber Linaza.

EH Bildukoak: Janire Ansotegi, Alberto Maria Sanchez eta Ainara Olazabalaga.

Dima

Diman 1.124 lagunek euki eben botoa emoteko eskubidea eta % 81,15ek gauzatu eben eskubide hori. Boto gehien EH Bilduk lortu eban, 471 (% 51,19) eta 5 hautetsi izango ditu udaletxean. EAJ-PNVk 3 ordezkari izango ditu 390 boto (% 42,39) jaso ditualako. PSE-EEK zortzi boto jaso ebazan eta ez dau zinegotzirik izango.

EH Bilduko hautetsiak: Nekane Intxaurtza, Ibon Iza, Jose Maria Atutxa, Maria Yolanda Palacios eta Francisco de Borja Ruiz.

EAJ-PNVkoak: Josune Gorospe, Francisco Javier Arteaga, Iurdana Acasuso eta Jose Antonio Aurrekoetxea.

Igorre

Igorren partizipazioa % 71,15ekoa

izan zan. Erroldan 3.237 lagun dagoz. Botorik gehien EH Bilduk lortu ebazan, 1.127 (% 48,93) eta 6 zinegotzi izango ditu. EAJ-PNVk, barriz, 1.013 (% 43,98) boto jaso eta 5 zinegotzi izango ditu. PSE-EEK eta PPK ez dabe zinegotzirik lortu; hurrengo hurrengo, 55 eta 28 boto jaso dabez eta.

EH Bilduko hautetsiak: Beinat Anzola, Itxaso Bengoetxea, Naiara Zurinaga, Jon Bilbao, Ainhoa Zuluaga eta Jon Koldobika Mendiola.

EAJ-PNVkoak: Andere Ortuzar, Jon Zabala, Raket Barañano, Julen Liendo eta Koldo Atutxa.

Lemoa

Lemoan 2.690 lagunek euki eben boto eskubidea eta partizipazioa % 71,82koa izan zan. EH Bilduk eta EAJ-PNVk bakarrik lortu dabez zinegotziak, PSE-EEK ez dau boto nahikorik izan orain arte euki dauan zinegotzia manteniduteko. EH Bilduk 946 boto (% 48,96) jaso dauz eta 6 hautetsi izango ditu udaletxean; EAJ-PNVk 5 zinegotzi, 754 (% 39,02) boto jaso dauz eta. PSE-EEK 112 boto eta PPK 31 izan dabez.

EH Bilduko hautetsiak: Saioa Elejabarrieta, Iskander Fernandez, Maitte Urrutxua, Jesus Maria Fernandez, Jokin Uriarte eta Idoia Pujana.

EAJ-PNVkoak: Iñaki Barrenetxea, Esther Iturriz, Miguel Angel Etxebarria, Mari Kruz Arana eta Mikel Barandika.

Ubide

Ubiden 138 lagun dagoz eroldan eta 26k ez eben botorik emon. Partizipazioa, beraz, 81,16koa izan zan. Ubideko Arnasa 64 boto lortu ebazan (% 57,14) eta 4 ordezkari izango ditu udaletxean. EAJ-PNVk be izango dau zinegotzi bat 29 boto (% 25,89) jaso ebazan eta.

UAKo hautetsiak: Joxe Antonio Pagola, Iker Saenz de Argandoña, Jon Txopitea eta Gizane Ibartutxi.

EAJ-PNVkoak: Juan Angel Barrenetxea.

Zeanuri

Zeanuriko erroldan, eskubide botoa daukien 1.016 lagun egon ziran eta partizipazioa % 81ekoa izan zan. Botorik gehien EAJ-PNVk lortu eba-

zan 411 (% 49,93) eta 5 hautetsi izango ditu udaletxean. EH Bilduk 377 boto (% 45,80) jaso ebazan eta 4 zinegotzi izango ditu. PPK hiru boto izan ebazan.

EAJ-PNVko hautetsiak: Eusebio Larrazabal, Eider Ajuriagerra, Felipe Agirrezabala, Eneritz Iza eta Miren Gurutze Etxebarria.

EH Bildukoak: Miren Zedari Jauregui, Gotzon Idirin, Irati Urien eta Arkaitz Estiballes.

Zeberio

Zeberion 885 lagunek euki eben boto eskubidea eta partizipazioa % 79,55ekoa izan zan. Botorik gehien EAJ-PNVk lortu ebazan, agintean egon dan EH Bilduk baino 7 boto gehiago: 345 boto (% 49) eta 5 ordezkari izango ditu udaletxean EAJ-PNVk. EH Bilduk, 338 boto izan ebazan (% 48) eta lau zinegotzi izango ditu. PPK boto bi eta PSE-EEK boto bat jaso ebazan.

EAJ-PNVko hautetsiak: Karlos Idirin, Roberto Gonzalez de Etxebarria, Montserrat Petralanda, Unai Larrabide eta Patxi Abrisketa.

EH Bildukoak: Ana belen Alberdi, Kepa Perez Urza, Itsaso Muruzabal eta Aitor Urieta.

Batzar Nagusiak

Bizkaiko Batzar Nagusietan, EAJ-PNVk 23 eserleku lortu dauz; EH Bilduk 11; PSE-EEK 7; Podemos-ek 6 eta PPK 4.

Gure eremua Durango-Arratia barrutian sartzean da eta 172.452 lagun dagoz eroldan honetan. Botoa % 64,56k emon eben. Barruti honetan aukeratutako eserlekuak holan dagoz bananduta: 5 eserleku EAJ-PNVrentzat izan dira; 3 EH Bildurentzat, eta Podemos eta PSE-EErentzat bana.

Mankomunidadea

Udal hauteskundeak Arratiako Udalen Mankomunidadean be izango dabe eragina bere eraketan. Hogeitahai dagoz. Udal-erri bakotzak biztanle kopuruaren arabera, ordezkari bat eta bosten artean ditu Mankomunidadean. Arantzazuk ordezkari bat dauka, Areatzak 2, Arteak 1, Bediak 2, Dimak 2, Igorrek 5, Lemoak 4, Ubidek 1 eta Zeanurik 2.

EPA Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea, bagila osoa.
Tifn. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A. IGORRE: Elexalde 22. Eleizako lokaletan

BICIS BIZI
Arratiarron dendea
JESUS CANAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gas
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea Pab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

ATHLETIC-BARTZELONA. ESPAINIAKO KOPAKO FINALA 2015

Arratiarrak Bartzelonan

Bartzelonan izandako marea zuri-gorriaren zati bat Arratiakoa zan. Arratian dagozan Athleticen lagunarteko bietako partaideak zein beste Athletic zale asko joan ziran Bartzelonara Errege Kopako finala ikustera. Igorreko Beñat Etxebarria Lagun Arteak autobus bi ipini ebazan, Areatzako Athletic Peña Gorbeiko Gurutzea-koak, barriz, bakotxa bere kabuz joan zan baina alkartu ziran bertan bazkaltzeko. Hona, irakurleak bialdutako egun horreetako argazki batzuk dakarguz. Gure webgunean gehiago dagoz.

Erredakzinoa



San Antonio JAIK 2015
www.arratia-merkatariak.com

TXU-TXU TRENA

IGORREN EROSI

San Antonio JAIK 2015
www.arratia-merkatariak.com

JOKALDI

Kili-Kili Umeen denda

Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

24h
Eguneko Ogiak
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

Psikologia orokorra
Familia eta bikote terapia
Psikoneurologia (esku hartze psikologikoa mintziak jotzeko gaitasun eta euren (familiaz))
Sexologia
Konsulta pribatua, etxean eta on-line

Sagrario Martin Iñigo
Psikologian doktorea

San Juan oazko 29, beheko - Igorre - 94 657 66 10
www.sagrariomartin.com - info@sagrariomartin.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Larrea
Lehendakari Agirre, 8 beheko
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askitasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazinoa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



Argazkiak: Ainhoa Duñabeitia, Imanol Garcia eta Irati Etxebarria.



XII. edizinoa | deiadar mendien eguna

Gorbeia

2015eko ekainak 7
Domeka

- 9:00 Urteerea Pagomakurretik
- 12:00 Batzar Nagusirako deia gurutzetik
- 13:30 Jai-gunea aterpearen ondoan

Deiadar Mendien Eguna
Día de los Montes Bocineros



ezkuroinetakoak

Lehendakari Agirre 14 · Igorre · 94 673 62 24

sew 0-16

Agirre Lehendakaria, 31 · 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 · sewmoda@hotmail.com

Laguntzaileak:

Arrolatzaileak:

**BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA**

TXIRRINDULARITZEA

Oskar Garro igorreztarra
Munduko Kopara

Erredakzioa

Oskar Garro txirrindularitza egokitutako txirrindulariak Munduko Kopako lasterketa bitan hartuko dau parte. Bagilaren 5 eta 7aren artean Maniagon (Italia) eta hilaren 13 eta 16aren artean Yverdon-les-Bains-en (Suitza) izango dira lasterketok.

Maiatzean, Espainiako Txirrindularitza Egokitutako Txapelketan hartu eban parte Garrok Euskadiko Selekzioagaz. Han, erlojupeko 18 km.ko lasterketan zazpi-garren egin eban Igorrekoak, eta 58 km.ko errepideko lasterketan bosgarrena izan zan helmugara esprintean sartuta.

RAID

Hamabost taldek emon dabe
izena II. Up-O Rogainen

Erredakzioa

Astebete eta erdi falta zanean probarako, hamabost taldek izena emonda eukien Areatzako orientazio proban parte hartzeako. Arratia Raid taldeak eta Lamino Mendi Taldeak antolatuten dabe Up-O rogaie orientazio proba bagilaren 6an izango da.

Antolatzaileak, dana dala, 40 talde eta 100 partaide ingurura ailegetea espero dabe. "Dane-rik egon da. Izena emon dabe banaka, bikoteak, laukoteak eta

abar. Jenteak atzen momenturarte itxaroten dau eta horregaitik, 35-40 taldetara ailegetea espero dogu" azaldu deutso BEGURI Xabier Iturriaga antolatzaileak.

Partaideak mapa batez 31 baliza topau beharko dabez Urkia, Birgun eta Upo mendien inguruetatik. Horretarako partaideak ur-jauziak, neberoak eta kobazulo bat dagoan lekuetatik pasauko dira.

Hasibarrientzat, bagilaren 4an, arrastiko 18:30ean, orientazio ikastaro-proba txiki bat egongo da Areatzan.



MOTORRAK

Podiumetik ezin bajatu

Irati Urien

Maiatzaren 9an Cross Country modalidadeko lasterketea egin zan Nanclares de La Ocan eta lau izan ziran parte hartu eben arratiarrak. Beteranoetan lehenengo egin eban Pedro Gorospek. Bere anaia Josu Gorospek be, podiuma egin eban hirugarren postuagaz Senior hogeta hamar urtetik gorakoen kategorian. Hogeta hiru urtetik beheraoketan bederatzigarren gelditu zan Jon Zuazo eta hamahirugarren Asier Zugazaga

zeberioztarra.

Maiatzaren 23an oster, Enduroko karrera izan zan Munitibarren. Gorospetarrak eta Ibarra lehiatu ziran bertan baina euren artean Pedro Gorospe lasterketatik kanpo itxi eben kontrolatoko bat ez pasetearren. Bestela bigarren postua lortu eban Josu Gorospek Senior Trofeo kategorian, eta Senior Campeonato-n bederatzigarrena Iban Ibarrak.

Hurrengo Cross Country hitzordua Elgoibarren izango da bagilaren 27an.

PALEA



Joko Alaiko neskak txapeldun

Irati Urien

Zeanuriko talde bik garaipena lortu dabe palan. Bizkaiko Eskolarteko Pala Txapelketa jokatu ibili dira neskak, eta Gernikan

euki eben finala maiatzaren 9an. Umetxoak-umeak kategorian lehiatu ziran talde biak baina pelota desbardinagaz. Aizea Berrio eta

Lur Olabarrik Bakioko Alaitasuna klubari irabazi eutsien minitenis modalidadean. Itsaso Larrinaga, Irati Artaraz eta Maialen Landa-jok osotutako hirukoteak oster, Areatzakoak garaitu ebazan gomazkoagaz.

Emakume Pilotarien Eguna Zeanurin

Bagilaren 14an izango da, 11:00etan. Eskola Kirolekoak eta federatuak, bizkaitar andra pelotari guztien topaketea egingo dabe Zeanuriko frontoian. Helburua andren pelota klubak eta teknikariak egindako beharra aintzat hartutea eta Bizkaiko andra pelotarien denporaldia ixtea da. Klub bakoiteko pelotarien desfilea, argazki ofiziala, erakustaldi partiduak, aintzatespen eta sari banaketak, musikea, speaker-a, opariak, zozketak... Jai girodun ospakizuna izango da Euskal Telebistako ETBsat kateak emitituko dauana.

FITNESS

Irati Urien

Aingeru Urbizu, Julen Aguilera, Joseba Gil eta Jagoba Guillen Mungian egin zan Bizkaiko Fitness Txapelketa aurkeztu ziran maiatzaren 17an eta finalerako pasea lortu eben bertan. Maiatzaren 30ean Gernikan izan zan Euskadiko Fitness Txapelketa, eta dedikaziozko urte gogoraren ostean sano emoitzak onak lortu ebezan. Aingeru Urbizu laugarren gelditu zan Bodyline Fitness mailan; Bodyline Hasiberriak kategorian oster, laugarren Joseba Gil eta bosgarren Julen Aguilera. Final honegaz datorren urtera arte amaitutzat emoten da aurtengo denporaldia.

Postu onak arratiarrentzat
Euskadiko Txapelketan

Aingeru Urbizu, Jagoba Guillen eta Julen Aguilera entrenadoreak.

MARATOI TXIKIA

Iñaki Pujanak eta Onditz
Iturbek irabazi dabe aurten

Erredakzioa

Iñaki Pujana igorreztarrak gizonetan eta Onditz Iturbe igorreztarrak be andrazkoetan jantzi ebezan XXXVI. edizino txapelak. Kategorian nagusiko garaileak izan ziran, baina ez bakarrak. Izan be, Maratoi honetan edade guztietako atletak hartzean dabe parte eta asko izaten dira irabazleak.

Zeanuri-Igorre Nagusiak

Andrak: Onditz Iturbe.
Gizonak: Iñaki Pujana.

Beteranoak

Andrak: Montserrat Valle.
Gizonak: Tomas Laso de la Fuente.

Artea-Igorre
1998tik 2000ra jaiotakoak

Neskak: Irati Peribañez.
Mutilak: Aitor Artaraz.

2001etik 2002ra jaiotakoak

Neskak: Ane Larrea.
Mutilak: Mikel Iza.

Dima-Igorre
2003tik 2005era jaiotakoak

Neskak: Irati Artaraz.

Mutilak: Liher Freire.

2005etik 2006ra jaiotakoak

Neskak: Eider Egia.
Mutilak: Anton Iza.

Igorreko zirkuitua
2007tik 2008ra jaiotakoak

Neskak: Laida Hierro.
Mutilak: Urko Irusta.

Haur Hekuntzakoak

Neskak: Aiora Serra.
Mutilak: Iker Artetxe.



AZKOREA/SEGA

Bi mila euro jokoan, Irati Astondoa eta Alatzne Etxaburuaren apustuan



Lehenengoz egingo dabe azkoran segalari biak.

Erredakzioa

Bagilaren 7an, Zizurkilgo (Gizurkioa) Mekola baserriaren ondoan, askotan segan neurtu diran Irati Astondoa zeanuriztarrak eta Alatzne Etxaburu tolosarrak azkora eta sega apustua jokatuko dabe. Alde bakotzak 2.000 euro jarriko ditu jokoan.

Egin beharreko lana 45 ontzako lau enbor ebagitea, eta ondoren ordubete osatu arte, segan jardutea izango da. Bedar kilo gehien ebagiten dauana izango da proba honetako irabazlea eta dirua etxera eroango dauana.

Behar handia da baina Irati Astondoa bost hilabetez egon dala desafioa preparentan eta irabazteko aukera asko daukazala dino. Izan be, "fuerte" ikusten dau bere burua eta irabaztera doa. Eta Etxaburuak zeanuriztarrari irabazteko

"behar handia egin beharko dau".

Aizkoran hasibarriak

Apustua egiteko idea orain dala urte bi sortu zan. Orduan Astondoa segan eta galapan egitea proposatu eutsan Etxaburuari, baina honek biak inoz egin bako lan bat egitea proposatu eban. Irati Astondoa onartu eta azkoran egitea ebatzi eben. Hori dala eta, apustua egindakoan hasi ziran biak aizkoran ikasten. "Asko ikasi dot, golpea non jo eta egurra zelan ebagi behar dan. Ondino asko daukat ikasteko baina lau korteak ebagiten ondo konponduten naz" azaldu deutso BEGITURI arratiarrak.

Bakotzak lau laguntzaile eroan leikez. Irati Astondoaen laguntzaileak aizkoran Gorka Urrutia eta Andoni Urrutia izango dira. Segan, barriz, Bixente Mitxelena eta Pabi Astondoa.

BIZIKLETEA

ZeberioXTrem IV. Mendi Bizikleta Martxea hilaren 7an

Erredakzioa

ZeberioXTrem IV. Mendi Bizikleta Martxea bagilaren 7an izango da. Partaideak Ermitabarritik abiatuko dira goizeko 09:00etan. Ibilbide bi dagoz aukeran; laburrenak 31 km.

ditu eta luzeenak 43 km.

Izena emon daiteke <http://www.rockthesport.com/evento/iv-zeberioxtrem> helbidean hilaren 5era arte, Garri Bikes dendan, edo probarean egunean bertan Ermitabarritik 07:30etik 08:45era arte.



ESKALADEA

Itziar Zabala: "Espainiako Kopea da nire aurtengo helburua"

Erredakzioa

Bizpahiru urte eskalada lehiaketatik kanpo izan ondoren, indartsu bueltau da bulderretara Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarra. Espainiako Kopako sailkapen orokorrean lehenengoa da, proba bi jokatu diranean. Lehenengo Trangoblock Eskalada Txapelketa be irabazi eban maiatzaren 9an Aretxabaletan, eta holan, Red Bull Creepers bigarren ediziorako sailkatu da. Garesen izango da hau, bagilaren 13an.

Lehiaketatik kanpo egon zara, pare bat urtetan baina indartsu bueltau zara. Espainiako Kopako proba bi jokatu dozuz eta lehenengoa irabazi eta bestean bigarren egin zenuen. Sailkapen orokorrean lehenengoa zara. Zeintzuk dira zure helburuak?

Lehiaketak egin ez arren, eskalatan ibili naz, momentuan egin gura nebana egiten, eta eskalatea da gehien gustetan jatana. Espainiako Kopako sailkapen orokorrean lehenengoa naz momentuz. Hurrengo helburuak Europako Txapelketa eta geroago Red Bull Creepers Psikoblock Txapelketa dira. Atzenengo ho-

netan zubi natural baten egiten da eskaladea eta jausi ezker, uretara jausten zara.

Garesko (Nafarroa) Erromesen zubia eskaletan ikusiko zaitugu orduan Red Bull Creepers-en.

Aurten bulderrean baino ez dot parte hartu, Espainiako Kopa da helburua, Kopako beste proba bi geratzen jataz zemendian. Bitartean, beste txapelketa batzuetan hartuko dot parte, Innsbruck-en Europako Bulder Txapelketan eta

Red Bull Creepers-en. Ez neban espero Innsbruck-era joatea baina gustura emongo dot nire onena eta ahalik eta gehien ikasten saiatuko naz.

Zelan egiten dozu entrenamendua?

Txapelketa bat prestetako beti entrenamendu planifikaua egiten dot. Hile pare baten entrenamendu gogorak egiten dodaz eta txapelketa baino egun batzuk arinago gelditzen naz ondo joateko.



Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Elexalde 4
Telefona 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

ZAZPI HAIZETARA

GORA IGORREKO JAIK !!!

ELIKADURAN BE BURUJABEAK!

Euskal Ekoizleen Aldeko Ekimena

Agirre Lehendakaria 11

Okindegia

+ Ke... PAN

Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE Lehendakari Agirre 11 94 656 65 52	IGORRE Sabino Arana 35 94 657 3898	AREATZA Goiko kalea 8 94 608 90 47
--	---	---

Igorreko jai zoriotsuak opa deusueguz!! Ondo pasau jaietan!

DEIADAR MENDIAK

Deiadar Mendien Eguna
bagilaren 7an ospatuko
da Gorbeiaiko tontorrean

Gorbeian deiadarra jotzen.

Erredakzinoa

Bizkaiko Batzar Nagusiak antolatuta, Gernikan egiten ziran batzarretarako adar hotsa entzungo da bagilaren 7an. Egun honetan ospatuko da Deiadar Mendien Eguna Gorbeian.

Igoera Pagomakurretik abiatuko da 09:00etan eta deiadarra 12:00etan joko dabe tontorrean. Gero, mendizaleak Arrabako aterpearen ondoan prestatutako jai ingurura jeitsiko dira, musika, bertsolari, euskal jantza eta jan-edateko zerbaitez gozatzeko. Aurten Gantzabal Mendi Taldeak euki dau antolaketearen ardura. Datorren urtean Koltizan ospatuko da egun hau.

Deiadar Mendiak

Deiadar Mendiak Gorbeia, Ga-

nekogorta, Koltiza, Sollube eta Oiz dira. Antxina mendi honeen tontorretatik adar hotsagaz egiten zan Gernikako Batzar Nagusirako deia. Batzar Nagusiak berreskuratu izanaren 25. urteurrena zala-eta 2004. urtean hasi ziran barriro Deiadar Mendiara igoerak antolatuten Bizkaiko Batzar Nagusiak bost mendi talderen laguntzeagaz. Lemoako Gantzabal Mendi Taldea da horreetako bat.

Deiadar Mendien ekitaldia ibilbide klasikoa bihurtu da Bizkaiko mendizale eta euskal tradizioen zaleentzat. Igaz ehundaka persona batu ziran Ganekogortan, Batzar Nagusien deiarri erantzunez, antxina Gernikara joaten ziran bizkaitarren ordezkariak egiten jakien deikerea gogoratzeko.

MARTXEA

Dimako ermitak ezetuteko
ibilaldia hilaren 6an

Erredakzinoa

Bagilaren 6an izango da aurten Dimako Udalak antolatuten dauan Dimako Ermiten Ibilaldia. Parte hartzean dabenak hamasei ermitatik pasauko dira eta 31 km. egingo ditue.

Ibiltariak goizeko 07:00retan batuko dira Dimako plazan. Ibilbidean

ermita honeek topauko ditue: San Roke, Olazabalen; San Migel Txiki; Madalena, Lamindaon; San Inazio; San Blas; San Fresku, Indusin; San Lontzo, Baltzolan; Santa Apolonia, Bargondian; Santa Mañe; San Antolin, Oban; San Bizente, Artaunen; Santa Ageda, Bikarregin; San Millan, Biteriñon; Santiago; San Balendin eta Piedadean amaituko dabe ibilbidea.

AKKT EGUNA

Indaba jana
AKKT Egunean

Erredakzinoa

Bagilaren 6an, Arteako Kirol Kultur eta euskera Taldeak (AKKT) bere eguna ospatuko dau. Taldea kirola eta kultura jorratuteko eta arteztarrak euren aisialdian egiteko ekimenak antolatuteko sortu zan. Euren eguneko ekitaldi nagusia Indaba Lehiaketea eta indaba jana izango dira.

Umeak be sano ondo pasauko dabe eguna; izan be, goizeko 11:00etatik hasiko dira olgetan, puzgarriak ipiniko ditue eta. Ondoren, 13:00etan, buruhandiak egongo dira. Umeak olgetan ibili bitartean AKKTkoak indabak prestatuko ditue eta 14:00etan lapikoak aurkezteko ordua izango da. Gero, herri bazkaria. Arrastiko 19:00etan, umeen jolasak egongo dira musikeagaz lagunduta eta 20:00etan txokolatea.



ZAINDU GURE LURRA

Materia organikoa konpost bihurtu

MATERIA ORGANIKORAKO
POLTSA BIODEGRADAGARRIAK
AMAITZEN JATZUZANEAN,
HARTU EIZUZ DEBALDE
ZURE UDALETXEAN
EDO MANKOMUNITATEAN

EDUKIONTZI MARROIAN
EDO AUTOKONPOSTAJEAN
IZENA EMON GURA BADOZU, DEITU
94 631 17 17
TELEFONO-ZENBAKIRA
EDO JO MANKOMUNITATERA



Konpostajearen bideak.
Zuk erabagi.



LITERATUREA

Unai Ormaetxea irabazle Lemoako lehiaketan



Erredakzinoa

Unai Ormaetxea Zenikazelaiaren "Behin egin zelako orain den tuntu bera!" izeneko narrazioak lortu eban Lemoako Narrazio Lehiaketako lehenengo saria. Beñat Berrueta Beobideren "Azken hitzak" lanak sari bi jaso ebazan; Lemoako 1. saria eta hirugarren saria. Bigarren saria Karmele Arrieta Zuazorentzat izan zan, "Eskerrik asko, Ramon" narrazioarengaitik.

Ez da lehenengo aldia Unai Ormaetxeak (Zomotza 1974) Lemoako Narrazio Lehiaketan sari bat lortzean dauana; igaz, bigarren saria lortu eban eta. Ormaetxea bertsolaria eta bertsolaritza irakaslea da. Kantuetako letrak be egiten ditu eta Exkixu eta Ken Zazpi musika taldeetako partaidea izan da.

Saritutako lanak Lemoako Udalen webgunean irakurri daitezke.

EUSKAL JAIA

Andrak herri kirol erakustaldia egingo dabe



Erredakzinoa

Bagilaren 6an izango da aurtengo Lemoako Euskal Jaia eta herri kirolak hartuko dau gaitzat. Jaia eguerdiko 13:00etan hasiko da poteoagaz. Hau trikitixearen musikeagaz eta herri kirol erakustaldiakaz girotu da. Arrastian, andren herri kirol erakusketea izango da Badaiotz Sokatira Taldearen eskutik.

Pozik hartu eban Badaiotz taldekoak Udalen konbitea herri kirol erakustaldiak egiteko eta jentea herri kirolak egiten animetako. Herri kirola, azkorea eta harria baino gehiago dala erakutsi gura dabe Badaiotz taldekoak, Ruth Linaza partaidearen esanetan. Andrak be badabizela plazetan dino-herri kirol eta sokatira-, eta aurtengo Euskal Jaia hori adiera-

zoteko aukerea emongo dau.

Arrastiko erakusketan, Badaiotz Sokatira taldeko zortzi tiralarik egingo dabez dinamizatzaila lanak. Lehenengotik kirol baten erakustaldia egin eta gero kirol hori egitera konbidauko dabez ikusleak. Probau daitezkezan herri kirolak, trontzea, txorokilak batu, ingudea, zaku karrera, txingak eroatea eta sokatira dira. "Normalean asko gustetan jako jenteari eta batez be umeai" dino Ruth Linazak.

Herri kirol poteoa

Goizean egingo dan poteoan Badaiotzek ez dau parte hartuko, baina ekintza honek be herri kirolak ezetuteko aukerea eskeiniko dau. Tabernaz tabernako ibilbidean lau gune egongo dira eta bakotxean herri kirol desbardin bat erakutsiko dabe.

UDALEKUAK

Zeberrioko Udalak DBHkoentzako udalekuak antolatuko ditu

Erredakzinoa

Zeberrioko Udalak eskolako umeentzako eta DBHko gaztetxoentzako udalekuak antolatuteko asmoa dauka. Izena bagilaren 12ra arte emon daiteke udaltxean. Lehenengoz antolatuko dira DBHko gaztetxoentzako udalekuak aurtengo udan, gitxieneko kopuru batek izena emon ezker.

Eskolako umeentzako udalekuak, 2003tik 2012ra bitartean jaiotako umeentzat dira eta bagilaren 22tik garagarriaren 3ra izango dira. Urtean-urtean 50 ume inguruk hartzean dabe parte udalekuotan eta

Udalak, honek bideratzeko, Eskola Zaharra eta pelotalekua ixten dauz. Goizeko 10:00etatik 14:00etara izaten dira, baina programazioren arabera aldatu daiteke ordutegia eta egun osoko ekintzak be antolatuten ditue egun batzuetan.

Etiket kanpo

Aurtengo, DBHko gaztetxoak, bost egun etiket kanpo pasetako aukerea eukiko dabe Udalen antolatutako udalekuetan. Bagilaren 29tik garagarriaren 3ra arte izango dira gaztetxoentzako udalekuak eta bertan 1999tik 2002ra bitartean jaiotakoak hartu leikie parte.

MAGIA

Umeak magia egingo dabe Tor magoagaz

Erredakzinoa

Bagilaren 4an, arrastiko seiretan Tor magoak *Hator magiara* ikuskizuna eskeiniko dau Igorreko Lasarte Aretoan. Umeak ikusi gura daben

magia dala dino magoak, euren pentasautak sortutako emonaldia. Umeak "barre egingo dabe, harrituko dira, magia ikusi eta garrantzitsuena, magia egingo dabe". Gainera, Lasarte Aretoan ume bazkideak debalde daukie sarrerea.

Umeak modu aktiboan hartuko dabe parte magia eginaz eta emonaldiaren nondik norakoa euren kontrolauko dabe. Ordubeteko saioa da gitxi gorabehera, batez be 4 eta 10 urte bitarteko umeai zuzendutakoa.



DUNBA

Lemoatik Nepalera ur tantak

Lemoako JB Eguzkitza Meabe IPIko LHko 3. zikloko ikasleak

Gure artikulua honek ez dau Nepaleko lurrikararen inguruko idatzia izan gura, jakingo dozue zalako ezbehar horren ondoriozko zifra larriak. Ikastetxean laguntzeko zer egin geinkean pentsetan ibili ginan. Gure laguntza tantak bialdu gura genduzan eta merkadu bat egitea pentsau genduan. Saltzeako eskulanak egin eta eskola komunitadeari jostailu, apaingarri, liburu eta abar ekarteko eskatzea otu jakun. Hau

guztia maiatzaren 13an salgai ipini genduan eskolan egindako merkadutxoan.

Ikasleok sano ondo sentidu gara laguntza emoteko egin diran ekintzak. Gu be haren egoeran egongo bagina, laguntza izatea gurako geunke.

Hasieran pentsau genduan batutako dirua gitxi zala, baina aztertu genduan zenbat gauza erosi leikiezan diru horregaz, konturatu ginan gitxi hori asko zala.

Hurrengo pausua izan zan zertan edo zelatan erabiliko genduzan lortutako 607 euro



Eskolan egindako merkadua.

horreek.

Gobernuz Kanpoko Erakundeak han egiten daben behararen informazioa aztertu ondoren,

Intermon Oxfam-en bidez bideratzea adostu genduan. Holan gure emoitak 150.000 litro ur edangari bihurtu genduan eta

erakunde horren bidez helduko dala jakiteak asko pozten gaitu. Gainera Lemoatik Baltistan Errokeagaz bat egiten jarraituko dogu.

Hemetik beste ikastetxe batzuk be antzeko ekintzak egitera animau gura doguz, danon artean laguntzak batuz gauza handiak egin leitekezalako.



AGENDEA

BAGILAK 2 ARRATIA

Gaztedi Arratia programeak ateratako Arratiako enpresetan behar egiteko bekeak lortzeako izen emotea zabalik bagilaren 10era arte. 18-25 urte bitartekoentzat.

DIMA

Hilaren 4ra arte, Dimako udalekuetarako begirale lan-boltsarako izen emotea. Hilaren 12ra arte, udaleku irekietan izena emoteko epea. Udaletxean.

BEDIA

17:00etatik 20:00etara, bagilaren 12ra arte, jaietako paella egunean parte hartzeako izen emotea. Liburutegian.

IGORRE

Hilaren 30era arte, Memoria Historikoa Igorren erakusketea.

Arratia Futbol Taldeak antolatutako udalekuan izena emoteko epea zabalik.

LEMOA

Hilaren 12ra arte, Lemoako Udalak jubiladuen biajearen izena emoteko epea, 2015-2016 ikasturtean eskulan ikastaroan izena emoteko epea, eta uretako sorosle ikastaroan izena emoteko epea. Udaletxean.

ZEBERIO

08:00etatik 15:00etara, hilaren 12ra arte, udal udalekuan izena emoteko epea, udaletxean.

BAGILAK 3

BEDIA

18:00etan, sexologia berbaldia "Gazteakaz gaia zelan erabili". Liburutegian.

BAGILAK 4

AREATZA

18:30ean, II. Up-O Rogaineko partaide hasibarrizentzako orientazio ikastaroa. AKKBk eta Arratia Raidek antolatuta.

IGORRE

17:30ean, berbaldia "Andrak eta gizonak modu desbardinean gaixotzen gara" Jubiladuen txokoa.

18:00etan, Tor Magoak, *Hator magiara*

ikusizuna. Lasarte Aretoan.

BAGILAK 5 AREATZA

Nazinoarteko Ingurumen Eguna. Birziklapen tailerra. Parketxeak antolatuta.

20:00etan, Karramarro Trio taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

DIMA

19:00etan, Diman etxean gura doguz presoan aldeko konzentrazioa.

IGORRE

19:00etan txupinazoa herriko jaiak hasikorea



Igorreko memoriaren testigantza IKEn

Gerra zibil, gerraoste eta industrializazio sasoen gainean, Igorre herriko hainbat bizilagunek lehenengo personan emondako testigantzak osotuen dabe bagilean zehar Igorreko Kultur Etxean egongo dan erakusketea.

Memoria eta transmisioa bermatzeko abiatu eban Igorreko Udalak sasoi honeen gaineko ikerketea. Horretarako, protagonistak egindako alkarrizketak jaso dira ikus-entzunezko formatoan, eta era kronologikoan erakusten dira.

Erakusketea ez da erakusten dan honetan amaituten, zabal-zabalik geratzen dan dokumentazio eta informazio gunea izan gura dau: ez amaitua, ezta amaierarik daukana be.

emoteko. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

LEMOA

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Stretching saioa. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

BAGILAK 6 AREATZA

II. Up-O Rogaine, orientazio proba herrikoa. 09:00etan, harrerea; 10:00etan, probaren hasikerea; 14:00etan probaren amaierara eta parrilladea. AKKBk eta Arratia Raidek antolatuta.

ARTEA

AKKT Eguna. 11:00etan, puzgarriak; 13:00etan, buruhandiak; 14:00etan, indaba lapikoen aurkezpena eta ondoren herri bazkaria; 19:00etan, umeen jolasak musikeagaz lagunduta; 20:00etan, txokolata.

DIMA

07:00etan ermiten ibilbidea. Plazan.

IGORRE

09:00etan, jubiladuak antolatutako mendi ibilbidea. Aretoa-Jeuribarri-Agarre-Udeagoiti-Muli-Amular-Iturtza-Mimintze-Etxebarri-Artabe-San Migel-Arantzazu-Aretoa.

LEMOA

Euskal Jaia. 13:00etan, triki-herri kirol poteoa Herradura tabernatik hasita; 15:00etan, bazkaria Arraibin; 18:00etan, andren herri kirol erakustaldia Gasteizko Badaizotz sokatira taldearen eskutik Arraibin.

ZEBERIO

18:00etan, Maskilu Kontserbak espazioaren ateak zabalduko dira. Ermitabarrin.

BAGILAK 7

DIMA

13:30ean, Gure Esku Dagok herri galdeketaen aurkezpena, manifestua irakurri eta hautestontzia egin. Plazan.

ZEANURI

Deiadar Mendien Eguna Gorbeian. 09:00etan Pagomakurretik urten Gorbeia. 12:00etan deiadara jo. Ondoren, jaiak Arrabako aterpean.

ZEBERIO

09:00etan ZeberioXTrem Ermitabarrin. 20:00etan, zinea *Her*. Udaletxeko bigarren solairuan.

BAGILAK 9

LEMOA

Hilaren 18ra arte, 2015-2016 ikasturteko informatika eta mekanografia ikastaroan izena emoteko epea. Liburutegiko informatika gelan.

BAGILAK 12

BEDIA

17:00etan, Sanjuanetan play-back-ean parte hartzeako eta txosnetan lagunduteko izena emoteko atzen eguna. Liburutegian.

LEMOA

20:00etan, Lemoako Koralak antolatuta Kantu-potea Herradura tabernatik abiatuta. Ibilbidea: Herradura, Kodigoa eta Kresala tabernak.

ZEBERIO

Udalekuan izena emoteko atzen eguna. Udaletxean.

18:00etan, Ermitabarrin jaietako txupinazoa. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

BAGILAK 13

AREATZA

20:00etan, Iker Piriz & The Barez Bros The Quiet Corner-en.

IGORRE

08:30ean, Jubiladuak antolatutako mendi ibilbidea. Aretoa-San Antonio-Eleizea-San Txisme-San Andres-San Antolin-San Kristobal-San Juan-San Migel-Aretoa.

BAGILAK 14

BEDIA

10:00etan, Merkataritza, Artisautza eta Elikadura Azokea. Plazan.

ZEANURI

11:00etan Emakume Pilotarien Eguna.

BAGILAK 15

BEDIA

Batzarrak. 17:00etan Txiki Txoko; 18:00etan, udalekuak; 19:00etan, Uda Gaztea biajea. Liburutegian.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

PISUA SALGAI

Pisua salgai Artean. Bizitara sartzeko moduan. Eguzkitsua. Deitu 665 739 936 telefonora.

PISUA SALGAI

Igorren. 3 logela, saloia, komuna eta sukaldea. Bizitara sartzeko moduan. Sano-sano argitsua eta eguzkitsua. Kalerantza emoten dau. 115.000 eurotan. Deitu 677 951 606 (Iru).

HOZKAILUA SALGAI

Hozkailua furgoneta zein karabanarako. la barria, hile bitan erabilita. 630 419 476 edo 94 631 71 45 telefonora deitu. Rosa (Artea).

DANERIK

BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketarako egiten dodaz. Kotxeduna 658 591 307.

PINTURA IRAKASLE BILA

Norbait prest egongo balitz pintura irakasteko eskola orduetatik kanpo Igorre aldean 10 urteko neska pare bateri,

seguru konponduko garala. Interesatuak lcbilbao@gmail.com erabili, mesedez.

ETXEAK EDO GELAK ALOKAIURAN

Conil de la Frontera etxeak zein gelak alokatzen dira. 647 126 074 Rosario.

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Baserrin biziteko lagun bila nabil (Zeberio). Bilbotik ordu erdira eta herrigunetik (denda, mediku, taberna...) 10 minutura oinez. 200 euro personako, gastuak barne. Interesatuak deitu 687 338 515 telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

3 gela, bainu bi, saloi handia. Altzariak ditu. 629 716 764.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Tor magoaren ikuskizunerako.

Amaia Azurmendi (Igorre)
Rikardo Beldarrain (Artea)



2 Axpe Goikoak emondako Garena txakolinaren kutxatxoa.

Edorta Zurinaga (Zeanuri)




3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Galde aurretik. Asmo, nahi.
- 2.- Langile Abertzaleen Batzordea.
- Birritan, bozina zaratearen onomatopeia. 3.- Zoli, mintxo.
- Germanioa. 4.- Azken letrea. Motel.
- 5.- Fruta tipo bat. 6.- Ibar. Boroa.
- 7.- (Atz.) Birritan, umeen berbetan, ogia.
- Hinduen artean, errege edo printzea.
- 8.- Baietza. Iriztatuz garraiatzen dan enbor. 9.- Argi, kontuz. Letra izena.

GOITIK BEHERA

- 1.- Tolestura. Zutabe. 2.- Haga, habe.
- Sasitza. 3.- Animalia askoren jateko.
- Indioaren sinboloa. 4.- Konsonante bat. Malko. Bigarren bokala.
- 5.- Sanskritoko silaba sagradua.
- Ubide. 6.- Bigun ez dagoana. Bibliako pertsonajea. 7.- Makur. Bake.



Topau ulea eta burua apaintzeko normalean erabilten diran zazpi gauzaren izenak.

O	R	I	A	T	A	K	U	L	A
G	R	A	I	N	O	L	O	K	T
I	L	U	N	K	A	S	U	N	X
S	E	R	E	M	A	L	A	G	I
A	H	I	A	G	O	K	A	N	A
D	O	O	R	R	A	Z	I	A	U
I	R	U	A	R	I	K	O	U	N
M	G	A	T	I	B	A	B	E	I
E	A	S	U	T	E	J	A	N	A
G	I	L	E	P	A	R	J	I	P
D	L	O	K	U	N	B	A	B	U
E	U	S	T	A	K	A	L	E	K
M	A	Z	K	I	L	U	X	E	S
U	K	L	A	K	A	R	A	T	E
B	O	K	I	L	A	R	E	B	U

AKI MI KO

Zorrozkiilo



AKITEGIA
GAV & LORA
IGORRE

ZEKUTZE
JATETxea
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

LEHENENCO LITERRA KULTUR
%15eko DESKONTUA
LESOREAK
basolo Emaldi
Abokatuak
☎ 620. 57.86.04
asierabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 55 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

AHOLKULARITZA:
ERBE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDASUN HERRIZINEN
ASIGURUTAN
Sabino Arana, 3 Thoa, 94 673 71 41 - Fax: 94 673 94 91 - 48140 IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

KIRRU • ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Fax 94 673 70 83
e-por: uruzulu@euskalnet.net

ELSA GARCIA LIZUNDIA

"Jazz-ak arrakasta izaten dau eremu euskaldunetan"

Elsa Garcia Lizundia saxofoijolea Zeberion bizi da orain dala 16 urtetik hona. Musika ikasketa klasikoak izan arren, jazz-ak erakarrita Iñaki Salvador, Víctor de Diego eta Andrzej Olejniczak irakasleak harmonia eta inprobisazioa landu eta jazz-aren bidetik abiatu zan aspaldi. Gaur egun, hainbat jazz taldeetan jotzen dau; tartean, Areatzako The Quiet Corner-en egondako Organizing taldean. Bilboko Haceria Jazz Club-eko programazio eta zuzendaritza artistikoaren ardura dauka.

Erredakzioa

Zer da Haceria Jazz Club?

Lau musikariren artean aurrera daroagun proiektua da. Idea orain dala hamar urte sortu zan. Orduan jazz-aren historiaren gaineko kontzertu didaktikoak egiten genduzan eta bururatu jakun barikuro kontzertu desbardin bat egitea artista konbidau bategaz batera. Gero jam session-a planteau zan. Nik horren koordinazioa daroat eta kontzertu horreek Bilboko Zorrozaurren dagoan Haceria Jazz Club-en izaten dira.

Jenteak jazz-a entzun behar dau sentidu ahal izateko. Zuzenean entzun behar da. Horregaitik errez entzuten dan errepertorioa eskeintzen dogu Hacerian.

Nortzuk zagoze proiektu honetan?

Lau musikariren lanari esker dago martxan proiektua. Holakoetan izaten dan moduan, lagunak gara lauok. Nik neuk, Gorka Iraundegik,

Fabian Akarregik, Raul Sainz de Rozasek eta Aritza Castrok osotuten dogu laukotea. Haceria Jazz Clubeko oinarriko laukotea gara eta esan deusudan moduan, artista konbidau bategaz jotzen dogu barikueta.

Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jauriaritzaren diru laguntzai esker atera ahal izan dogu aurrera, baina murizketak izan doguz eta egoera gaxa da. Baina burugogorak gara eta aurrera doa.

Beste talde askoren artean, Girls in Band taldean be jotzen dozu.

Bai. Girls in Band andrazkoak osotutako laukotea da. Taldekideak aldatu egiten dira, disonibildadearen araber, baina askotan, Queralt Camps (kontrabajua), Elisabeth Raspall (pianoa), Lucia Martinez (bateria) eta ni neu (saxoa) batzean gara izen horren pean.

Dokumental bat dago *Girls in Band* izenekoa; antxinako andrazkoen musika banden barri emoten da bertan. 1930 eta 1940 hamarka-

detan andrazkoak osotutako ehundaka banda egozan. Gizonezkoen bandetan ezin eben jo eta euren bandak sortu ebezan. Sano talentu handiko andrak ziran, baina sasoi haretako kronistak inoz ez eutseen euren maila aitortu. Kritiko batek esan eban "Jainkoak bakarrik egin ahal dau zugatza eta gizonak bakarrik jo daikie ondo jazz-a".

1920ko hamarkadea andren liberazioaren sasoi izan zan. Musikeari jagokonean, andrak lehendik be jotzen eben pianoa edo bibolina baina ez haizezko tresnarik. Orduan hasi ziran. Oinarriko laukoteak eta big band-ak sortu ziran. Kalidade handiko musika egiten eben eta gainera sano dibertigarriak ziran. Hareen omenez sortu da talde hau.

Andrazkoen egoera zeozertxo hobetu dan arren, andrazko gitxik jotzen dabe jazz-a eta ez da ohikoa andrazko jazz talde bat ikustea.

Ez bakarrik jazz-ean, musikan orokorrean gitxi dira neskez osotutako bandak...

Ni musika munduan hasi nintzan modu autodidaktan gitarrea jotzen eta hasikera haretan neska talde bat sortu genduan Ariadne izenekoa. Pop musika egiten genduan. Sei neska ginan eta Don Domingo izenekoa RNEko lehiaketa baten hartu genduan parte. Finalaren ateetan geratu ginan, Duncan Dhu taldearen aurretik. Lehiaketea Semen Up taldeak irabazi eban. Baina produktoreak ezin ginduzan leku askotara eroan adin txikikoak ginalako.

Girls in Band jazz

taldea, 1930 eta

1940 hamarkadetako

andrazkoen banden

omenez sortu da.



Ezaguna egin ziran Dinamita pa los pollos taldean, ezta?

Bi urte egon nintzan talde horregaz eta taldearen atzen disko biak grabau nebazan. Koroak egiten nebazan talde honetan. Niretzat sorpresa bat izan zan. La ley izenekoa taldean nengoan orduan. Tekladua eta saxofoia jo eta koroak egiten nebazan La ley-n. Dinamita pa los pollos taldekoak korista bila egozan eta ez oso konbenziduta baina probara aurkeztu nintzan. Hartu ninduen eta esandako moduan urte bi egon nintzan talde haretan.

Zure ibilbide luze honetan, badago kontzerturen bat aiatu gura dozuna, zuretzat berezia izan dana?

2014an Hacerian Juan Claudio Cifuenteseri egindako omenaldia. Cifuentesek lan handia egin eban jazz-a zabaltzen irratian eta telebistan, batez be 1980ko hamarkadan. Neure ekimenez, Girls in Band-ek eskeini eutsan kontzertu bat. Orain

dala hile batzuk hil da Cifuentes.

Amaitzeko, emon eidazu sorpresa bat esanez badagoala konexino bat New Orleans eta Zeberioaren artean eta Zeberio eta Arratiako musikea, euskal folk-a baino gehiago jazz-a dala.

Kar, kar, kar. Eremu euskaldunetan folk-a entzuten da gehiago, baina egia da Zeberion jo izan dodanean, jentea poz-posit egon dala. Gauza bera gertatu zan The Quiet Corner-en: Organizing taldeak jo eban eta jenteari asko gustau jakon. Jazz-ak arrakastea izaten dau eremu euskaldunetan.

Dana dala, gaxa da jazz-agaz bizimodua ateratea, musikari profesionalak Euskal Herrian eta estadu osoan oso lan baldintza eskasak daukiez-eta. Europako beste herrialde askotan askoz hobeak dira (langabezi saria eta abar) eta asko dira Londonera, Berlinera edo beste uri batera joaten diranak.



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)












• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.

• Garraio zerbitzua.